eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

I. ERANSKINA, UPV/EHUko ERREKTOREAREN EBAZPENARENA, SOPELAKO HIGIEZIN BAT ENKANTE BIDEZ BESTERENTZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEKOA

ANEXO I A LA RESOLUCIÓN DE LA RECTORA DE LA UPV/EHU POR LA QUE SE INICIA EXPEDIENTE PARA LA ENAJENACIÓN MEDIANTE SUBASTA DE UN INMUEBLE SITO EN SOPELA

SOPELAN DAGOEN ETA UPV/EHU-REN JABETZAKOA DEN ETXEBIZITZA BAT ENKANTE BIDEZ BESTERENTZEKO BALDINTZA JURIDIKO-EKONOMIKOEN PLEGUA.

PLIEGO DE CONDICIONES JURÍDICO-ECONÓMICAS PARA LA ENAJENACIÓN MEDIANTE SUBASTA DE UNA VIVIENDA SITA EN SOPELA Y PROPIEDAD DE LA UPV/EHU.

1. <u>KONTRATUAREN XEDEA</u>:

Salerosketa kontratu honen xedea etxebizitza bat da, 83,32 m^2-ko azalera erabilgarria duena, Sopelako Arriatera etorbideko 59 zenbakiko 3. ezkerrean (Larrabasterra auzoa) kokatua. Jarraian zehazten da, erregistroko deskribapenaren arabera:

"HIRIKOA.- HAMABOST. C LETRAKO ETXEBIZITZA, C-1 ataritik igota, goiko HIRUGARREN solairu edo solairukoa, laurogeita bederatzi metro eta hirurogeita bi dezimetro karratuko azalera erabilgarria duena; ehuneko lau osoko eta laurogeita bost ehuneneko partaidetza duena, eta C.2 blokearen parte dena, Sopelako Larrabasterra auzoan."

Erregistroko inskripzioa: Bilboko 11. Jabetza Erregistroan: 4697 zenbakidun finka, 1899. liburukia, 230. liburua, 223. folioa, 3. inskripzioa.

Katastroko erreferentzia: U4181869M.

Aipatu higiezina UPV/EHUren Ondasunen eta Eskubideen Inbentarioan dago inskribatuta, ondare ondasun izaera du eta UPV/EHUk eskuratu du dohaintza bidez. Dohaintzaren emaileak

1º. <u>OBJETO DEL CONTRATO</u>:

El objeto de este contrato de compraventa es una vivienda, de 83,32 m^2 de superficie útil, sita en el número 59-3º izda. de la avenida Arriatera (Barrio Larrabasterra) de Sopela, que se especifica a continuación de acuerdo con su descripción registral:

"URBANA.- QUINCE. VIVIENDA LETRA C. IZQUIERDA subiendo por el portal C-1, del piso o planta alta TERCERA, que tiene una superficie útil de ochenta y nueve metros y sesenta y dos decímetros cuadrados; participa con cuatro enteros y ochenta y cinco centésimas de entero por ciento, y forma parte del bloque C.2, en el Barrio de Larrabasterra, de Sopelana."

Inscrita en el Registro de la Propiedad nº 11 de Bilbao como finca nº 4697, al tomo 1899, libro 230, folio 223, inscripción 3ª.

Referencia Catastral: U4181869M

El citado inmueble se encuentra inscrito en el Inventario de Bienes y Derechos de la UPV/EHU, tiene carácter de bien patrimonial y ha sido adquirido por la UPV/EHU mediante donación. Conforme a

ezarritakoaren arabera, UPV/EHUk alzheimerraren eta parkinsonaren inguruan egiten dituen ikerketak finantzatzeko erabiliko da salerosketaren prezioa.

lo establecido por la donante, el precio de la compraventa será destinado a financiar las investigaciones que realiza la UPV/EHU en materia de alzheimer y parkinson.

Higiezina fisikoki aztertzeko, aldez aurretik UPV/EHUko Ondare Zerbitzuarekin hitzartu beharko da bisita bat, 946015030 telefono zenbakian.

Para examinar físicamente el inmueble, deberán concertar previamente la visita con el Servicio de Patrimonio de la UPV/EHU en el siguiente teléfono 946015030.

2. ADJUDIKAZIODUNA HAUTATZEA:

2º. SELECCIÓN DEL ADJUDICATARIO:

Adjudikazioduna hautatzeko enkante publikoaren prozedura baliatuko da, eskaintzak gutun azal itxietan aurkeztuta.

La selección del adjudicatario se efectuará mediante procedimiento de subasta pública con presentación de ofertas en sobre cerrado.

3. OINARRIZKO PREZIOA:

3º. PRECIO BASE:

Oinarrizko prezioa, lizitatzaileek hobetu dezaketen lizitazio tasa, BERREHUN ETA LAUROGEITA BAT MILA ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (281.061,77 €) da, zergak kanpo.

El precio base, tipo de licitación mejorable al alza por los licitadores, se establece en DOSCIENTOS OCHENTA Y UN MIL SESENTA Y UN EUROS Y SETENTA Y SIETE CÉNTIMOS (281.061,77 €), impuestos no incluidos.

Proposamen ekonomikoa ezin izango da aurreko paragrafoan adierazitako lizitazio tasa baino txikiagoa izan. Proposamen ekonomikoa finkatutako lizitazio tasa baino txikiagoa baldin bada, automatikoki baztertuko da.

La propuesta económica no podrá ser inferior al tipo de licitación señalado en el párrafo anterior. En caso de que la propuesta económica sea inferior al tipo de licitación fijado, quedará excluida automáticamente.

4. PROZEDURA:

4º. PROCEDIMIENTO:

Lehena.- *Gaitasuna.*

Primero.- *Capacidad.*

Prozedura honetan har dezakete parte kontratatzeko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, kontratu mota guztietarako gaitasun orokorraren inguruan eta, bereziki, salmenta kontratuetarako eta enkante publikoen prozeduretan parte hartu ahal izateko kode zibilak ezarritako arauen arabera.

Pueden tomar parte en el procedimiento todas aquellas personas, físicas o jurídicas, que tengan capacidad para contratar, de acuerdo con las normas contenidas en el Código Civil sobre capacidad general para toda clase de contratos, y en particular para el contrato de compraventa y para la participación en procedimientos de subasta pública.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Ezin dezakete prozeduran parte har administrazio publikoekin kontratatzeko debekurik jaso dutenek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan onetsitako sektore publikoen kontratuei buruzko legearen testu bateratuaren 71. artikuluan ezarritakoaren arabera (BOE, 272. zk., 2017ko azaroaren 9koa).

No pueden tomar parte en el procedimiento los incursos en cualquiera de las prohibiciones para contratar con las Administraciones Públicas establecidas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (B.O.E., nº 272, de 9 de noviembre de 2017).

Bigarrena.- ***Dokumentazioa***.

Prozedura honetan parte hartu nahi duten pertsona fisiko eta juridikoek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetzaren Ondare zerbitzuaren aurrean (UPV/EHU, Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa z.g., 48940 LEIOA):

- I. eranskinean jasotako ereduaren araberako instantzia. Haren bidez, eskatzen da prozeduran parte hartu nahi duela; haren bidez, adierazten da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan zerrendatutako egoeretako batean ere ez dagoela; eta, haren bidez, adierazten da enkantearen xede den higiezina zein egoeratan dagoen badakiela.

- Norberaren izenean edo ahaldun gisa proposamena aurkezten duen pertsonaren NANaren kopia, eta IFKren kopia, pertsona juridikoen kasuan.

- Pertsona juridikoak diren enpresek jarduteko duten gaitasuna eratze eskrituren bidez edo aldaketa eskrituren bidez egiaztatuko da, hala badakio, Merkataritzako Erregistroan jasota, aplikatzekoa den merkataritza legediaren arabera betekizun hori bete beharrekoa denean. Hala ez bada, jarduteko

Segundo.- ***Documentación***.

Las personas físicas y jurídicas que deseen tomar parte en este procedimiento deberán presentar la siguiente documentación dirigida a la Vicegerencia de Patrimonio y Contratación, Servicio de Patrimonio (UPV/EHU, Edificio Rectorado, Barrio Sarriena s/n, 48940 LEIOA):

- Instancia según modelo recogido en el anexo I, en la que se solicita la participación en el procedimiento, se declara no estar incurso en ninguna de las circunstancias enumeradas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público y declara conocer el estado en que se encuentra el inmueble objeto de la subasta.

- Copia del D.N.I. de la persona que presenta la proposición en nombre propio o como apoderado y del C.I.F. en caso de personas jurídicas.

- La capacidad de obrar de las empresas que fueran personas jurídicas se acreditará mediante escritura de constitución o modificación, en su caso, inscrita en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de

gaitasuna frogatzeko honako hauetako bat aurkeztu behar da: dagokion erregistro ofizialean inskribatutako eraketa eskritura edo dokumentua, estatutuen agiria edo sortze egintzaren agiria, jarduerari buruzko arauak zehazten dituena.

obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro Oficial.

- Pertsona juridikoa, asoziatiboa edo sozietarioa baldin bada edota, banakako enpresa izanik, enpresaren erregistroko titularrak proposamen ekonomikoa sinatzen ez baldin badu, ahalordetze eskritura ere aurkeztu beharko da, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan, eskaintza ekonomikoa izenpetzen duen pertsonaren alde, administrazioarekin kontratatzeko ahalmenarekin.

- Si se trata de una persona jurídica, asociativa o societaria, o siendo empresa individual no firme la proposición económica el titular registral de la empresa, habrá también que incluirse escritura de apoderamiento, debidamente inscrita, en su caso, en el Registro Mercantil, a favor de la persona que suscriba la oferta económica, con facultades para contratar con la Administración.

- Enkantearen lizitazioaren oinarrizko prezioaren %20ko bermea eratu izanaren egiaztagiria, baldintza-agiri honen bosgarren puntuan ezarritakoaren arabera.

- Justificante de la constitución de garantía por el 20% del precio base de licitación de la subasta, conforme a lo establecido en el punto quinto del presente pliego.

- Eskaintza ekonomikoa duen gutun azal itxia, II. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Gutun azala lizitatzaileak edo haren ordezkariak izenpetuta egon beharko du. Gutun azalaren aurrealdean, eskaintza egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren izena adierazi beharko da.

- Sobre cerrado con la Oferta económica según el modelo recogido en el anexo II. Dicha oferta deberá estar firmada por el licitador o por la persona que lo represente. En la parte delantera del sobre se deberá señalar el nombre de la persona física o jurídica que realiza la oferta.

Eskaintza baztertzea ekar dezake eskatzen den edozein dokumentu ez aurkezteak edo haiek zorrotz ez betetzeak.

La omisión de cualquier de los documentos que resulten requeridos, o la no observancia estricta de su cumplimiento, podrá dar lugar a la exclusión de la oferta.

Proposamen ekonomiko bakarra onartuko da pertsona fisiko edo juridiko

Únicamente se admitirá una proposición económica por cada persona física o

interesdun bakoitzeko. Era berean, ezin dute ABEE baten kide gisa parte hartu beren kasa proposamen bat aurkeztu duten pertsonek, ez eta aldi berean zenbait ABEEtan parte hartu ere. Arau horiek urratzeak pertsona horiek sinatutako proposamen guztiak atzera botatzea ekarriko du.

jurídica interesada. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en UTE con otras si lo ha hecho individualmente ni figurar en más de una UTE. La infracción de estas normas dará lugar a la inadmisión de todas las propuestas por ella suscritas.

Proposamenak aurkezteak adierazten du lizitatzaileak salbuespenik eta erreserbarik gabe onartzen dituela plegu honen eta gainerako kontratu dokumentuen baldintzak, eta, era berean, erantzukizunpeko adierazpena egiten duela ziurtatzeko aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla.

La presentación de proposiciones presume la aceptación por el licitador, sin salvedad ni reserva alguna, de las cláusulas de este pliego y del resto de documentos contractuales y la declaración responsable de la exactitud de los datos presentados y de que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas para esta contratación.

Hirugarrena.- ***Argitaratzea***.

Tercero.- ***Publicación***.

Prozedura honen iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratuko da, bai eta Sopelako Udaleko iragarki taulan ere; hori guztia, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 100. artikuluan ezarritakoaren arabera.

El anuncio de este procedimiento se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco (B.O.P.V.) y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia (B.O.B.), así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Sopela, todo ello conforme a lo establecido en el artículo 100 del Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi.

Laugarrena.– ***Eskaintzak aurkezteko epea***.

Cuarto.- ***Plazo para la presentación de ofertas***.

Enkante honetan parte hartzeko interesa luketenek beren proposamenak aurkeztu beharko dituzte, hilabeteko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Las personas interesadas en la participación en esta subasta deberán presentar sus proposiciones en el plazo de un mes a partir de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco (B.O.P.V.).

Epez kanpo aurkeztutako proposamenak prozeduratik kanpo utziko dira automatikoki, lizitatzaileak alegatutako justifikaziorik kontsideratu gabe.

Las proposiciones presentadas fuera de plazo serán excluidas del procedimiento de forma automática, sin tener en consideración justificación alguna alegada por el licitador.

Proposamenak UPV/EHUren "Erregistro gaietan laguntzeko bulego" hauetakoren

Las proposiciones habrán de presentarse en alguna de las siguientes "Oficinas de

batean aurkeztu beharko dira:

- Bizkaiko Campuseko Erregistro Gaietan Laguntzeko Bulegoak:
    - Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremuko Errektoregoaren eraikina (Sarriena auzoa, z/g. – 48940 Leioa)
    - "Larrako Etxea", Erregistro Gaietan Laguntzeko Bulegoa: Agirre lehendakaria etorbidea, 81 (48015 Bilbo).
- Gipuzkoako Campuseko Erregistro Gaietan Laguntzeko Bulegoa: Ignacio Mª Barriola eraikina (Elhuyar plaza, 1. - 20018 Donostia).
- Arabako Campuseko Erregistro Gaietan Laguntzeko Bulegoa: Arabako Campuseko Errektoreordetza (Izardui Komandantearen kalea 2 – 01005 Gasteiz).

Asistencia en Materia de Registros" de la UPV/EHU:

- Oficinas de Asistencia en Materia de Registros del Campus de Bizkaia:
    - Edificio Rectorado del Área de Leioa-Erandio del Campus de Bizkaia (Bº Sarriena s/n – 48940 Leioa).
    - Oficina de Asistencia en Materia de Registros "Larrako Etxea": Avenida Lehendakari Aguirre, 81 (48015 Bilbao).
- Oficina de Asistencia en Materia de Registros del Campus de Gipuzkoa: Edificio Ignacio Mª Barriola (Plaza Elhuyar, 1 - 20018 Donostia-San Sebastián).
- Oficina de Asistencia en Materia de Registros del Campus de Araba: Vicerrectorado del Campus de Álava (C/ Comandante Izarduy, 2 – 01005 Vitoria-Gasteiz).

Dokumentazioa posta bulegoetan aurkezten bada, lizitatzaileak bidalketaren berri eman beharko du egun horretan bertan, mezu bat helbide elektroniko honetara bidalita: ondarea@ehu.eus. Posta elektroniko bidezko jakinarazpen hori baliozkoa izan dadin, ezinbestekoa da jasota geratzea bidali eta jaso dela, noiz bidali den eta noiz jaso den, bai eta ondo zehaztea ere zer bidali den (komunikazioaren eduki osoa), nork bidali duen eta nork jaso behar duen. Kasu horretan, kopia inprimatua eskuratu beharko da, eta, aurrez erregistratu ondoren, espedienteari erantsiko zaio (III. eranskin gisa erantsi da komunikazio eredua).

En el caso de que la documentación se presente en oficinas de correos, el licitador deberá anunciar el envío dentro del mismo día a través de correo electrónico remitido a la siguiente dirección: ondarea@ehu.eus. El anuncio a través de correo electrónico sólo será válido si existe constancia de la transmisión y recepción, de sus fechas y del contenido íntegro de las comunicaciones y se identifica fidedignamente a quien emite y a quien va destinado. En este supuesto, se procederá a la obtención de copia impresa que, previo registro, se incorporará al expediente (se adjunta modelo de comunicación como anexo III).

Bidalketaren jakinarazpenak bildu

El anuncio de envío debe incluir la

beharko ditu: espedientearen identifikazioa (OP 12/23 B), lizitatzailearen identifikazioa eta posta bulegoak emandako ezarpen egiaztagiria. Bi baldintzok bete ezean, proposamena ez da onartuko, UPV/EHUk eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen badu. Nolanahi ere, aipatu epea amaitu ondoren, hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, berau ez da inolaz ere onartuko.

identificación del expediente (OP 12/23 B) y del licitador y justificante de imposición proporcionado por la oficina de correos. Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la proposición si es recibida por la UPV/EHU con posterioridad a la fecha de terminación del plazo de presentación de ofertas. Transcurrido, no obstante, diez días naturales siguientes a la fecha de dicho plazo sin haberse recibido la proposición, ésta no será admitida en ningún caso.

Bosgarrena.- ***Mahaia eratzea***.

Quinto.- ***Constitución de la Mesa.***

Ondare Zerbitzuko burua edo hark eskuordetutako pertsona izango da mahaiburua, eta Mahaiko kideak izango dira honako hauek: Kontratazio Zerbitzuko teknikari bat, Barne Kontroleko Zerbitzuko teknikari bat, Kontabilitate Zerbitzuko teknikari bat eta Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetzako letradu bat –azken horrek idazkari jardungo du; hitza izango du, baina botorik ez–.

La Mesa estará presidida por el Jefe del Servicio de Patrimonio, o por la persona en quien ésta delegue, e integrada por un técnico/a del Servicio de Contratación, un técnico/a del Servicio de Control Interno, un técnico del Servicio de Contabilidad y un letrado/a de la Vicegerencia de Patrimonio y Contratación, actuando este último de Secretario con voz, pero sin voto.

Mahaiko erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, mahaiburuaren kalitateko botoak erabakiko du.

Los acuerdos de la Mesa se adoptarán por mayoría de votos. En caso de empate, dirimirá el voto de calidad del presidente.

Seigarrena.- ***Higiezina adjudikatzea***.

Sexto.- ***Adjudicación del inmueble***.

Proposamenak aurkezteko ezarritako epea igarotakoan, Mahaia bilduko da, lehenik eta behin lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko.

Transcurrido el plazo establecido para la presentación de proposiciones, se reunirá la Mesa para analizar en primer lugar la documentación presentada por los distintos licitadores.

Mahaiak beharrezkotzat jotzen badu eskaeraren bat zabaltzea edo zuzentzea, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Eskaintza ekonomikoa jasotzen duen gutun azala aurkezten ez bada, ezin izango da

En caso de que la Mesa estime necesaria la ampliación o subsanación de alguna solicitud, se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su solicitud. En ningún caso, la falta de presentación del sobre con la oferta económica podrá dar lugar a subsanación,

zuzenketarik egin ezein kasutan, eta lizitatzaileak kanpoan geratuko dira automatikoki.

quedando excluidos los licitadores de forma automática.

Mahaiak higiezina eskuratzeko interesa izan eta plegu honetan prozedura honetan parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten lizitatzaileak hautatutakoan, eskaintza ekonomikoak jasotzen dituzten gutun azalak irekiko dira.

Una vez seleccionadas por la Mesa los licitadores que, interesados en la adquisición del inmueble, cumplen los requisitos establecidos en el presente pliego para la participación en este procedimiento, se procederá al acto de apertura de los sobres que contienen las ofertas económicas.

Gutun azal itxian aurkezten ez diren proposamen ekonomikoak automatikoki baliogabetuko dira eta aurkeztu gabekotzat joko dira.

Las proposiciones económicas que no se presenten en sobre cerrado quedarán invalidadas de forma automática y se tendrán por no presentadas.

Proposamen ekonomiko handiena aurkeztu duen lizitatzailearen aldeko adjudikazio proposamena helaraziko dio Mahaiak UPV/EHUko errektoreari, eta, era berean, lizitatzaile hori ordezteko hurrenkera ezarriko du, gerora adjudikazioari uko egiten badio. Berdinketa baldin badago zenbait eskaintzaren artean, Erregistroan lehenengo sartu den eskaeraren aldeko adjudikazioa erabakiko du Mahaiak, eta, berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez.

La Mesa elevará a la Rectora de la UPV/EHU propuesta de adjudicación a favor del licitador que haya presentado la proposición económica más elevada, estableciéndose además el orden de sustitución de éste para el supuesto de que renunciase posteriormente a la adjudicación. En caso de empate entre varias ofertas, la Mesa decidirá la adjudicación a favor de la solicitud que primero hubiera entrado en el Registro y, si persistiera el empate, mediante sorteo.

UPV/EHUko errektoreak adjudikazio ebazpena emango du eta prozeduran parte hartzen duten guztiei jakinaraziko zaie ebazpen hori.

La Rectora de la UPV/EHU emitirá la Resolución de adjudicación, resolución que se comunicará a todos y cada uno de los participantes en el procedimiento.

Administrazio bidea agortzen duen errektorearen adjudikazio ebazpenari berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko organo beraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita. Errekurtsoa aurkezteak ez dakar inola ere prozedura etetea.

La Resolución de adjudicación de la Rectora que pone fin a la vía administrativa podrá ser recurrida en reposición ante el mismo órgano de la UPV/EHU en el plazo de un mes desde su notificación. La presentación de recurso no supone en ningún caso la suspensión del procedimiento.

Zazpigarrena.- ***Prozedura ebazteko epea***.

Séptimo.- *Plazo de resolución del procedimiento*.

Prozedura sei hilabeteko epean ebatziko da gehienez.

Epe horretan berariazko ebazpenik eman ezean, agertu diren interesdunek ulertu ahal izango dute beren eskabideak ezetsi egin direla isiltasun administratiboa dela eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan jasotakoaren arabera.

5. <u>BERMEA</u>:

Lizitatzaileek lizitazioaren oinarrizko prezioaren %20 eratu beharko dute berme gisa, prozeduran parte hartzeko: BERROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HAMABI EURO ETA HOGEITA HAMABOST ZENTIMO (56.212,35 €).

Prozedura hauetakoren baten bidez eratu beharko da bermea:

- Eskudirutan, banku transferentzia UPV/EHUren honako kontu honetara: ES30 2095 0292 92 3239000001.
- Banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba, kredituetarako finantza establezimendu edo elkarren bermerako sozietateren batek, Espainian jarduteko baimendun dela, arauzko eran eta baldintzetan emandako abalaren bidez, UPV/EHUko Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetzako Ondare Zerbitzuaren aurrean (Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa z.g. – 48940 Leioa).

- Kauzio arloan jarduteko baimena duen aseguru erakunde batekin egindako aseguru eta kauzio kontratu baten bidez –erregelamendu bidez ezarritako moduan eta baldintzetan–. Kontratuaren ziurtagiria entregatu

El plazo máximo de resolución del procedimiento será de seis meses.

En caso de falta de resolución expresa en dicho plazo, los interesados que hubiesen comparecido podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo conforme a lo recogido en el artículo 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5º. <u>GARANTÍA</u>:

Los licitadores deberán constituir garantía por el 20% del precio base de licitación de la subasta para participar en el procedimiento: CINCUENTA Y SEIS MIL DOSCIENTOS DOCE EUROS Y TREINTA Y CINCO CÉNTIMOS (56.212,35 €).

La constitución de la garantía se deberá efectuar mediante alguno de los siguientes procedimientos:

- En metálico mediante transferencia bancaria en la siguiente cuenta de la UPV/EHU: ES30 2095 0292 92 3239000001.
- Mediante aval prestado, en la forma y condiciones reglamentarias, por alguno de los bancos, cajas de ahorro, cooperativas de crédito, establecimientos financieros de crédito y sociedades de garantía recíproca autorizados para operar en España y presentado en el Servicio de Patrimonio de la Vicegerencia de Patrimonio y Contratación de la UPV/EHU (Edificio Rectorado, Barrio Sarriena s/n – 48940 Leioa).
- Mediante contrato de seguro de caución celebrado en la forma y condiciones que reglamentariamente se establezcan con Entidad aseguradora autorizada para operar en el ramo de caución, debiendo entregarse el certificado

beharko da UPV/EHUko Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetzako Ondare Zerbitzuan (Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa z.g. – 48940 Leioa).

del contrato en el Servicio de Patrimonio de la Vicegerencia de Patrimonio y Contratación de la UPV/EHU (Edificio Rectorado, Barrio Sarriena s/n – 48940 Leioa).

Banku transferentzia bidez eskudirutan eratutako bermea besterentzearen prezioaren ordainketari aplikatuko zaio.

La garantía constituida en metálico mediante transferencia bancaria se aplicará al pago del precio de la enajenación.

Berme hori eratu izanaren frogagiririk ez badago gainerako dokumentuekin batera, eskaintza automatikoki baztertuko da.

La falta de justificante de la constitución de dicha garantía con el resto de la documentación dará lugar a la exclusión automática de la oferta.

Behin kontratua esleituta, adjudikaziodun izan ez diren lizitatzaileei itzuliko zaizkie bermeak. Edozein arrazoirengatik, esleipen-ebazpenean ezarritako ordezte-ordena aplikatu behar bada ondoren, esleipendun berriak bermea jarri beharko du berriro, lehen adierazitako baldintza berberetan, 10 eguneko epean, esleipena jakinarazten zaion egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Una vez adjudicado el contrato, se procederá a la devolución de las garantías a los licitadores que no hayan resultado adjudicatarios. En caso de que, por cualquier causa, haya que proceder posteriormente a aplicar el orden de sustitución establecido en la resolución de adjudicación, el nuevo adjudicatario quedará obligado a prestar nuevamente garantía, en las mismas condiciones recogidas anteriormente, en el plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a aquél en que se le comunique su adjudicación.

6. SALEROSKETA FORMALIZATZEA:

6º. FORMALIZACIÓN DE LA COMPRAVENTA:

Salerosketa eskritura publikoan formalizatu beharko da bi hilabeteko epean, adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

La compraventa deberá formalizarse en escritura pública en el plazo de dos meses desde el día siguiente a aquél en que hubiera recibido el adjudicatario la notificación de la adjudicación.

Prozedura honetatik adjudikaziodunari sorrarazten zaizkion betebeharrei erantzuteko, bermea UPV/EHUko diruzaintzan gordailututa mantenduko da adjudikazio prezio osoa kobratu arte. Adjudikaziodunak adjudikazioari uko eginez gero, UPV/EHUk adjudikaziodunak aurkeztutako bermea exekutatuko du.

Para responder de las obligaciones que del presente procedimiento se derivan para el adjudicatario, la garantía se mantendrá depositada en la tesorería de la UPV/EHU hasta el cobro de la totalidad del precio de adjudicación. En caso de que el adjudicatario renuncie a la adjudicación, la UPV/EHU ejecutará la garantía presentada por el adjudicatario.

Salerosketaren prezioa ordaindu beharko da salerosketa eskritura publikoan formalizatu aurretik.

El precio de la compraventa deberá ser satisfecho antes de la formalización de la compraventa en escritura pública.

Salerosketa formalizatuko duen notariotzaren izendapena higiezinaren eskuratzailearen kontura izango da, eta Bilbon, Sopelan (higiezina dagoen tokian) edo, bestela, Leioan (UPV/EHUren egoitza sozialean) helbidea duen notariotza bati egokituko zaio.

La designación de la notaría en la que se formalizará la compraventa correrá a cuenta del adquirente del inmueble, debiéndose corresponder con una notaría domiciliada en Bilbao, en Sopela (lugar donde radica el inmueble) o, en su caso, en Leioa (domicilio social de la UPV/EHU).

Salerosketatik erator daitezkeen gastu eta zerga guztiak eskuratzailearen kontura izango dira, notario eta erregistro gastuak barne, bai eta eragiketari aplikatu beharreko zergak ere, Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga izan ezik (udal gainbalioa).

Todos los gastos e impuestos que puedan derivarse de la compraventa correrán a cargo del adquirente, incluidos los gastos notariales y registrales, así como los impuestos que sean de aplicación a la operación, salvo el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana (plusvalía).

7. <u>KONTRATUA SUNTSIARAZTEA</u>:

7º. <u>RESOLUCIÓN DEL CONTRATO</u>:

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira: adjudikazioari uko egitea; kontratua eskritura publikoan ez formalizatzea bi hilabeteko epean esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; kontratuaren prezio osoa ez ordaintzea; eta adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen gainerako suntsiarazteko arrazoiak, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoak.

Serán causas de resolución del contrato la renuncia a la adjudicación, la no formalización del contrato en escritura pública en el plazo establecido de dos meses desde el día siguiente a la notificación de la adjudicación, la falta de pago del precio total del contrato, así como las demás causas de resolución imputables al adjudicatario previstas en la legislación vigente.

Adjudikaziodunari egotz dakiokeen edozein suntsiarazte kasuren ondoriozko kalte-galerak direla-eta bidezkoak izan daitezkeen kalte-ordainak baztertu gabe, bermea galtzea ekarriko du kontratu suntsiarazteak.

Sin perjuicio de las indemnizaciones que pudieran proceder en concepto de daños y perjuicios causados por cualesquiera supuestos de resolución imputables al adjudicatario, la resolución del contrato conllevará la pérdida de la garantía prestada.

8. <u>ERANTZUKIZUNA</u>:

8º. <u>RESPONSABILIDAD</u>:

Prozedura honen xede den higiezina dagoen egoeran besterentzen da, eta uste da adjudikaziodunak baduela egoera horren berri, bere eskabideari erantsitako dokumentuan adierazi duen gisan; era

El inmueble objeto del presente procedimiento se enajena en el estado en que se encuentra, presumiéndose que la adjudicataria conoce este estado, tal y como ha manifestado en el documento

berean, Kode Zibilaren 1.485. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, UPV/EHUk ez du erantzun behar egon daitezkeen ezkutuko akats edo gabeziei dagokienez.

incorporado a su solicitud, y sin que, a tenor de lo prevenido en el artículo 1.485 del Código Civil, la UPV/EHU responda de los eventuales vicios o defectos ocultos.

9. ARAUBIDE JURIDIKOA:

9º. RÉGIMEN JURÍDICO:

Kontratua salerosketa kontratu gisa tipifikatzen da, eta, horrenbestez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 4. eta 9. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratu pribatuaren izaera du eta aplikatu beharreko ondare legediak arautzen du.

El contrato se tipifica como contrato de compraventa, por lo que se encuentra excluido del ámbito de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público en virtud de lo establecido en sus artículos 4 y 9, tiene carácter de contrato privado y se rige por la legislación patrimonial aplicable.

Kontratua, prestatu eta adjudikatzeari dagokionez, honako hauen arabera arautuko da: baldintza juridiko-ekonomikoen plegu hau; Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia; eta, horietan aurreikusi ez den orotan, subsidiarioki aplikagarria den gainerako araudia.

Este contrato se regirá en cuanto a su preparación y adjudicación por el presente pliego de condiciones jurídico-económicas, por el Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, y, en lo no previsto por ellos, por demás normativa de aplicación subsidiaria.

Besterentzea formalizatutakoan, araudi zibilean ezarritakoak izango dira haren ondoreak.

Una vez formalizada la enajenación, sus efectos serán los establecidos en la normativa civil.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio kontratua prestatzeari eta adjudikatzeari buruz sortzen diren arazoak aztertzea, eta jurisdikzio zibilaren eskumena izango da aldeen artean kontratuaren ondoreei, hura betetzeari eta hura azkentzeari buruz sortzen diren eztabaidak.

Corresponde al orden jurisdiccional contencioso-administrativo el conocimiento de las cuestiones que se susciten en relación con la preparación y adjudicación del contrato, siendo competencia del orden jurisdiccional civil las controversias que surjan entre las partes en relación con los efectos, cumplimiento y extinción del mismo.

Adjudikaziodunak berariaz uko egiten dio bere egoitzako foruari, eta sor daitezkeen gorabehera eta erreklamazio guztiak ebazteko eskumena duten Bilboko epaitegi eta auzitegien mende jartzen da.

El adjudicatario hace una renuncia expresa al fuero de su domicilio y se somete a los Juzgados y Tribunales de Bilbao que sean competentes para la resolución de cuantas incidencias y reclamaciones pudieran plantearse.


eman ta zabal zazu
Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

I. ERANSKINA / INSTANTZIA

_____
_____ jaunak / andreak, _____ NAN zenbakia duenak eta helbidea _____n, _____ kalean duenak, bere izenean edo _____ _____ _____ren izenean, zeinak _____ IFZ zenbakia baitu eta helbide soziala _____ _____n baitu,

ESKATZEN DIO

Interesduntzat har dadila Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) irekitako prozeduran parte hartzeari dagokionez. Prozedura horretan, enkante publiko bidez besterenduko da Sopelako Arriatera etorbideko 59 zenbakiko 3. ezkerrean (Larrabasterra auzoa) dagoen etxebizitza, eta

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU

1. Sopelako Arriatera etorbideko 59 zenbakiko 3. ezkerrean (Larrabasterra auzoa) dagoen etxebizitza, UPV/EHUren jabetzakoa, enkante bidez besterentzeko Baldintza Juridiko-Ekonomikoen Plegua ezagutzen duela.

2. Ezagutzen duela UPV/EHUren jabetzakoa den etxebizitzaren egoera, fisikoa eta juridikoa, eta ezingo diola UPV/EHUri, zio hori dela eta, erantzukizunik eskatu.

3. Ez dagoela Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko ezein

ANEXO I / INSTANCIA

D./Dña. _____ _____, con D.N.I. _____ y domicilio en _____, calle _____, en nombre propio o en representación de _____ _____ _____, con N.I.F. _____ y domicilio social en _____ _____,

SOLICITA

Se le tenga como interesado en la participación en el procedimiento abierto por la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) para la enajenación mediante subasta pública de una vivienda sita en el número 59-3º izda. de la Avenida Arriatera (Barrio de Larrabasterra) de Sopela, y

DECLARA

1º. Conocer el Pliego de Condiciones Jurídico-Económicas que rige la enajenación mediante subasta de la vivienda sita en el número 59-3º izda. de la Avenida Arriatera (Barrio de Larrabasterra) de Sopela, propiedad de la UPV/EHU.

2º. Conocer el estado, físico y jurídico, en que se encuentra la vivienda propiedad de la UPV/EHU, sin que pueda exigir, por este motivo, responsabilidad alguna a la UPV/EHU.

3º. No estar incurso en ninguna de las prohibiciones para contratar con el sector público enumeradas en el artículo 71 de la

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

debekuren pean.

_____(e)n, 202__ko _____aren ____(e)(a)n.

Sinadura

Ley de Contratos del Sector Público.

En _____, a __ de _____ de 202__.

Firma

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

II. ERANSKINA / ESKAINTZA EKONOMIKOA

_____ jaunak / andreak, _____ NAN zenbakia duenak eta helbidea _____n, _____ kalean duenak, bere izenean edo _____ _____ _____ren izenean, zeinak _____ IFZ zenbakia baitu eta helbide soziala _____ _____n baitu, eskaintza ekonomiko hau egin du Sopelako Arriatera etorbideko 59 zenbakiko 3. ezkerrean (Larrabasterra auzoa) dagoen etxebizitza enkante publiko bidez besterentzeko espedientean:

_____ EURO (_____ €), zergak kanpo.

_____(e)n, 202__ko _____aren ____(e)(a)n.

Sinadura

(Eskaintza ekonomiko hori dagokion erregistroan entregatu beharko da, gutun azal itxian)

ANEXO II / OFERTA ECONÓMICA

D./Dña. _____ _____, con D.N.I. _____ y domicilio en _____, calle _____, en nombre propio o en representación de _____ _____ _____, con N.I.F. y domicilio social en _____ _____, realiza la siguiente oferta económica en el expediente para la enajenación mediante subasta pública de la vivienda sita en el número 59-3º izda. de la Avenida Arriatera (Barrio de Larrabasterra) de Sopela:

_____ _____ EUROS (_____ €), impuestos no incluidos.

En _____, a __ de _____ de 202__.

Firma

(Esta oferta económica habrá de entregarse en sobre cerrado en el registro correspondiente)

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

III. ERANSKINA /
KOMUNIKAZIO EREDUA, POSTA BULEGOAN INSTANTZIA AURKEZTUZ GERO

UPV/EHUren jabetzako higiezina, Sopelako Larrabasterra auzoan dagoena, enkante bidez besterentzeko prozedurari (Esp.: OP 12/23 B) dagokion dokumentazioa entregatzea.

Lizitatzailearen izen-abizenak: _____.

IFK: _____.

Helbidea: _____ _____.

Udalerria: _____ _____.

PK: _____.

Posta elektronikoko helbidea: _____.

Dokumentazioa entregatu da, eskaintza ekonomikoa gutun azal itxian dagoela, _____ko posta bulegoan, 2023ko _____aren ___(e)(a)n.

Posta bulegoak emandako egiaztagiria erantsi da.

_____(e)n, 202__ko _____aren ____(e)an

Stua.: _____

UPV/EHU-KO ONDARE ZERBITZUARI

ANEXO III /
MODELO DE COMUNICACIÓN EN CASO DE PRESENTACIÓN DE INSTANCIA EN OFICINA DE CORREOS

Entrega de documentación correspondiente al procedimiento de enajenación mediante subasta del inmueble propiedad de la UPV/EHU sito en el Barrio de Larrabasterra del municipio de Sopela (Exp. OP 12/23 B).

Nombre y apellidos del licitador: _____.

C.I.F.: _____.

Domicilio: _____ _____.

Municipio: _____ _____.

C.P.: _____.

Dirección de correo electrónico: _____.

Entrega de la documentación, con la oferta económica en sobre cerrado, en la oficina de correos de _____, el día ___ de _____ de 2023.

Se adjunta justificante emitido por la oficina de correos.

En _____, a __ de _____ de 202__.

Fdo. _____

AL SERVICIO DE PATRIMONIO DE LA UPV/EHU